



LASARTE-ORIAKO
UDALA

Lasarte-Oriako Ostalaritzaren aktibazioa

Activación de la Hostelería en Lasarte-Oria

1. Partehartze-bileraren akta

Acta de la 1ª reunión de participación

Dokumentu zkia.: 01

Data / Fecha:	2012/11/20	Ordua / Hora:	10:00 - 11:30
Lekua Lugar:	Lasarte-Oriako Udala "Villa Mirentxu"ko ekitaldi aretoa Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Salón de actos de "Villa Mirentxu".		
Antolatzaileak: Convocantes:	<input type="checkbox"/> Gizarte Zerbitzuak, Inmigrazioa, Kooperazioa, Enplegua eta Emakumea Saila: Departamento de Servicios Sociales, Inmigración, Cooperación, Empleo y Mujer: <ul style="list-style-type: none">○ Gorka Lizarraga. Departamentuko lehendakaria. Presidente del Departamento.○ Dionisio Ávila. Enplegu dinamizatzailea. Dinamizador de Empleo.○ Izaskun Cuartango. Toki garapenerako teknikaria. Agente de Desarrollo Local. <input type="checkbox"/> Parte-hartze Saila: Departamento de Participación Ciudadana: <ul style="list-style-type: none">○ Larraitz Sarobe. Partehartze teknikaria. Técnico de participación ciudadana.		
Bertaratuako establezimenduak: Establecimientos asistentes:	<ul style="list-style-type: none">○ Abend Kafe-antzokia○ Arkupe taberna○ Bar Eguzki○ Bar Restaurante Maider	<ul style="list-style-type: none">○ Bar Restaurante Lasarte○ Restaurante Txartel-txoko○ Santxo taberna	

Landutako gaiak

Azaldu egiten da bileran jarraituko den **metodoa**: banakako erreflexioa, taldekako analisia eta komunean jartzea. **Helburu nagusia** da proposamenak egitea sektorea laguntzeko, hobetzeko edota ekimen berriak abiatzeko Udalaren eta Lasarte-Oriako ostalaritzako establezimenduen lankidetzaz.

Sektorean Mantendu nahi dena

1. Bezeroak
2. Kontzertuak eta jarduera musikalak (Multimusikala,...)
3. Establezimenduen dibertsitatea

Hobetu nahi dena

1. Terrazen ordutegiak. Araudi bat egin zehaztuz zein ordurarte egon daitezken irekita, eta ezagutu nahi da ere momentu honetan Hirigintza sailean zer ari den arautzen (antza denez, araudi berri bat prestatzen ari da orain).
2. Bilera sektorial hauen formatua mantendu, eta partehartzea areagotu.
3. Kultura-jarduera gehiago egin eta hobeto sakabanatu udalerrri osotik. Adibidez, jaietan ez daitezela egon ekintza denak Okendo plazan kontzentratuta.
4. Aterpeako elkarteak hobetu. Hobetu ere Lasarte-Oriako ostalarien elkarteak.
5. Gaueko segurtasuna hobetu Lasarte-Orian: udaltzainen patruila gehiago, labanek soinean daramatzaten pertsonen kontrola egin, eta baita ere gauetan egoten diren inzidentziena. Horrekin posible izango litzateke ostalaritzako kontsumoa inguruko udalerrri seguruagoetara ateratzea.
6. Udalak publizitate handiagoa egitea sektoreak antolatzen dituen ekintzen inguruan.
7. Eskaintza kultural eta ekimen gehiago.

Ez dagoena

1. Partehartze handiagoa duen elkarte bat. Ostalarien arteko batasun handiagoa.
2. Aparkalekuetarako espazioetan terrazak jartzeko aukera eman (Urnieta egiten den bezala)
3. Aparkalekuentzako espazio gehiago eman (adibidez, aipatzen da Atsobakar-en egindako obren ondorioz aparkatzeko espazio gutxiago geratu dela).
4. Ez dago kontrolik gaueko borrokengain, ezta horiekin bukatzeko neurrikerik ere (behin ta berriz gertatzen borrokak dituzten lokalak itxi, eta abar).
5. Ixteko ordutegiak errespetatzen ez dituzten lokalen kontrola (pertsanak jaitsi eta barruan bezeroak atenditzen jarraitzen dute).
6. Ekintzaileentzako laguntza espezifikoa, adibidez, Udalak kopromisoa hartzea irekiera-lizentzia hilabeteko epean emateko gehienez ere.